

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Idiazabal



Aurkibidea

Udalerria: Idiazabal

Sarrera



Gipuzkoako udalerria da, Goierri kokatua. Bertakoek lzał deritzote herriari. Herritarrak "Axari" ("Azeria") ezizenez ezagunak dira. Herriak izena ematen dio sukaldaritzan oso aintzat hartua den Idiazabalgo gaztari. Industria (elikagai-industria, hegazti-hazkuntza, mekanika eta metalgintza), zerbitzuak (garraioak, ostalaritza), basogintza (pagoa, artea eta pinua) eta abeltzaintza dira jarduera nagusiak.

- **Biztanleak:** 2.299
- **Euskaldunak:** %78,45

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **18**
- Zintak: **21**
- Pasarteak: **130**
- Transkribatutakoak: **2**
- Audioak: **5**
- Bideoak: **96**

Proiektuak

- Antzin eta Urdirozko udalekuen historia
- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- Goierri Telebista
- Gure Nagusiak - Urola Garaia: Mende bat iruditan
- Zegama, Urbia eta Aizkorriko artzaintza

Hizlariak

Agustina Aierbe Goikoetxea (1923)

Idiazabalgo Ursuaran auzoko Pagoetagoikoa baserrian jaio zen. Aita zuen bertakoa eta ama, berriz, Ursuarango Lizardi baserrikoa. Zortzi senidetan gazteena, Idiazabalgo eskolan hamaika urte zituen arte ibili zen. Baserrian makina bat lan egin behar izan zuen, eta elkarrizketan baserriko bizimoduaren inguruko kontu ugari esan zizkigun.

Maria Elena Aldasoro Mujika (1923)



Maria Elena Idizabalgo Egileor baserrian jaio zen, aita zuen bertakoa eta ama berriz Idizabalgo Aitzeder baserrikoa. Eskolara hamaika urte zituen arte joan zen, baserrian lan asko egin zuen eta hamabost urte zituela Donostiara joan zen neskame gisa lan egitera.

Jexux Aranburu Urbieta (1960)



Idiazabalgo Ondramuño baserrikoa. Etxeko artaldea, lehen amaren izenean zegoen eta ondoren Jexuxek hartu zuen. Anaia [Juanjo](#) eta haren emazte [Mari Angelesek](#)in egiten zuen gazta Idiazabalen zeukaten gaztandegian. Elkarrizketa hirurei batera egin zitzairen. Argazkian, eskubikoa da Jexux.

Juanjo Aranburu Urbieta (1959)



Idiazabalgo Ondramuño baserrikoa. Zeraingo Olabide baserriko [Mari Angeles Iñurrategi](#)ekin ezkondua. Elkarrizketa egin zitzaizenean, bertan bizi ziren alabarekin. Olabiden lehen behiak zituzten, ardiak ezkonduz geroztik izan zituzten. Juanjok etxetik ikasitakoa, Mari Angelesek Arantzazuko eskolan ikasitakoari erantsi eta aurrera eraman zuten esplotazioa. Neguan etxe inguruko larreetan ibiltzen ziren ardiak, Zerainen. Aldiz, gaztak Idiazabalgo gaztandegian egiten zituzten. Elkarrizketan Juanjoren anaia [Jexux Aranburu](#)k ere parte hartu zuen. Argazkian, ezkerrekoa da Juanjo.

Joxe Kruz Aranburu Urkia (1941)



Joxe Kruz Idiazabalgo Konramuño baserrian jaio zen. Aita zuen bertakoa, ama, berriz, Hintzaibar baserrikoa. Landare eta sendabelarretan aditua, Zirika irratian zenbait elkarrizketa egin zizkioten landareen ezaugarriei buruzkoak, guk ere elkarrizketa egin genion eta Idiazabalgo hainbat istori aipatu zizkigun.



Inazio EzioIaza (1936)

Inazio eta anaia Benitori arbasoengandik zetorkien artzaintzarako sena. Inaziok Urdalurgo saroian (gaur egun ur azpian) pasa zituen 1944-1969 arteko udak. 30 urterekin, halabeharrez, utzi zuen artzaintza eta fabrikari lanean hasi zen.



Florentino Goiburu Oiarbide (1933-2012)

Florentino Goiburu idiazabalدار bertsolariak aspaldi utzi zion artzain ogibideari baina Urbian pasatu zituen 30 urte arteko udak (1963).

Maria Rosario Imaz Aseginolaza (1926)



Rosario Idiazabalgo Aizkorreta baserrian jaio zen 1926an, aita bertakoa zuen eta ama Idiazabalgo beheko Galbario baserrikoa. Idiazabalgo eskolara joan zen, 14 urte zituenean Beasainera joan zen josten ikastera, eta Maria Cristina hotelean ere lan egin zuen zerbitzari gisa, bertan pertsonaia esanguratsu asko ikusi zuen. Ezkondu zenean [Mutiloa](#) joan zen bizitzera.

Luis Katarain Urteaga (1926-2014)



Idiazabalgo Aritzeder baserrian jaio zen; aita zuen bertakoa, eta ama Idiazabalgo Atxisain baserrikoa. Umetan eskolara joan zen; baina, 13 urte zituela, aita zazpi bat ardi eraman zituen etxera, eta artzaintzaren inguruko interesa piztu zitzaion. Horrenbestez, eskola bukatu eta artzain-lanetan hasi zen. Urteen poderioz, artaldea handituz joan zen; eta, 24 urte zituela, txabola bat bere egin, eta udak bertan pasatzen hasi zen. Elkarrizketa egunean, artzaintza maite zuela argi utzi zigun, ardiei buruzko eta haien zaintza eta hustiapenari buruzko hainbat kontu aipatu zizkigun. 80 urteak pasata izanda ere, uda txabolan pasatu zuela aipatu zigun.

Roxario Mintegi (1919)



Idiazabalgo Ursuaran auzoan jaio zen, Etxegarate mendiaren magalean. Gaur egun, erdi hustuta dago auzoa, baina garai hartan eliza, eskola eta taberna zituen, eta baserri mordoxka bat. Denboraldi batean neskame lanetan jardun ondoren, Orbegozorenean egin zuen lan.

Agustina Mujika Intxausti (1922-2017)



Agustina Idiazabalgo Ursuaran auzoan jaio zen. Aita Ursuarangoa zuen eta ama berriz Idiazabalgo Lardizabal baserrikoa. Bost urte zituela bera jaio zen etxea erre egin zen eta Ursuaranen bertan zegoen Elizalde etxera joan zen bizitzera bere guraso eta anai -arrebekin. Etxe azpian taberna bat jarri zuten; jaten eta edaten emateaz gain, auzokoentzat arrosa, azukrea eta bestelakoak ere saltzen zituzten bertan. 25 urte zituela Zepai bertsolariarekin ezkondu zen eta herrira joan ziren bizitzera, bertan ere etxe azpian taberna ireki zuten. Garai bateko taberna giroa ondo ezagutu zuen Agustinak.

Antonia Mujika Urrestarazu (1916-2019)



Antonia Idiazabalgo Erdikoa baserrian jaio zen. Ama zuen bertakoa, eta aita, berriz, Idiazabalgo Urbizu baserrikoa. Eskolara gutxi joan zen; izan ere, gurasoak artzainak zituen. Horrenbestez, udako denboraldia Urbian igarotzen zuten, eta negukoa Bizkaian. Hemezortzi urte zituela, Donostiara joan zen neskame lanetan aritzera.

Bautista Oiarbide Goiburu

Bizi guztian artzain izan da. Ardiak zaindu eta gazta egin, horixe izan da bere bizibidea. Idiazabal inguruko lur guztiak goldatuta egoten ziren, eta beti kanpoan ibili izan da ardiekin.

Juanita Oiarbide Goiburu (1928-2022)



Idiazabalgo Bentatxiki baserrian jaio zen. Aita bertakoa zuen, ama, berriz, Artea baserrikoa. Bentatxikin taberna eta denda zuten eta makina bat lan egin zuen bertan. Taberna eta beste hainbat gaien inguruan hitz egin zigun Juanitak elkarrizketan.

Rikardo Telleria Barandiaran

Rikardo Telleria Barandiaran Idiazabalgoa da, baina ama Ataunekoa zen. Bost anai-arreba ziren, 4 mutil eta neska bat. Aita tabernaria zen eta zaldi-gurdiak zituzten jendea trenera Beasainera eramateko. Idiazabalgo eskolan ikasi zuen eta ofizios txoferra zen. 15 urterekin hasi zen Beasaineko garajeen lanean. Hiru urte eman zituen Gerra Zibilean, Amaiur batailoian gudari lehenengo eta gero preso. Nazionalek mekaniko eta txoferrak behar zituzten eta bolondres aurkeztu zen.

Juan Urrestarazu Aldasoro (1931-2023)



Idiazabalen jaioa, gurasoak ere bertakoak zituen. Bederatzi senidetan gazteena, Idiazabalgo eskola nazionaletan ikasi zuen. Meza-mutil ere ibili zen, eta eskola aurretik apaizari meza ematen laguntzera joan behar izaten zuen sarri. Baserrian eta basoan lan asko egindakoa, Orklin, Lima lantegian eta kamioilari-lanetan ere ibili zen. Berrogei urte zituela ezkondu eta hiru seme-alaba izan zituen.

Francisco "Pantxo" Urteaga Garmendia (1928)



Pantxo Beasaingo kale-etxe batean jaio zen. Seme bakarra zela, lau egun zituela ama hil eta Idiazabalgo Korta baserrira eraman zuten bertako emakumeak bularra eman ziezaion. Hilabete batzuk bertan pasa ondoren, bere izeba-osabekin joan zen bizitzera, Iñautira. Eskolan Beasainen ibili zen eta, soldaduska bukatutakoan, CAFen hasi zen lanean. Gaztetan herri ugaritako jai eta erromerietara joatea gogoko zuen. Bere emaztea izango zena, zarautzarra bera, Ernioko erromerian ezagutu zuen.



Juan Urzelai Lizarralde (1923)

Oñatiko Albarditzaga (*Albarritza*) baserrian jaioa.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Familia eta harremanak

1.1. Etxeko lanak erdibana

- **Hizlaria(k)**: Oiarbide Goiburu, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Begiristain, Unai
- **Erref**: IDI-002/001

- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:34
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Armendaritz, Xabier
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Garai batean taberna zuten eta lana denen artean banatzen zuten. Amak txandan erakusten zien denei lan ezberdinak egiten.

Transkripzioa

- Unai: Zuek hemen, bueno, iaz arte, oain dala urtebete arte eo behintzet, hemen taberna izan dezue, eta etxen, gizonetzko, emakumezko, danetik izango ziñeten. Lanak nola partittu izan die zuen etxe hontan? Tabernako kontu hori ta nola izan da?

- Juanita: Ba... bakoitzek e... besten lana nik igual ta... bestek igual nee lana ta, eo... "lo que sea", baldin badaki eitten ta "o lo que sea", ta segi. Gure etxen [...] danea ikasi [...].

- Danea?

- Danea, danea, danea, danea, ikasi behar da, danea ikasi behar da, bai, bai, bai. Lehenao gure ama zanak, ta aitte zanak, ama zanak behintzet, [...] gehigo umei ama zanak, amak eakusten [...] -ta, eskola juteako, bueno, zuk kuartoa garbittu, zuk patatak zuittu, zuk ohiak ein, zuk ez dakit ze ein, zuk... ta danak, e? Ta... gaur o bihar'e, Andrea palta baldin badeu'e, [...], lanen ikasten zeatu behintzet!

- Ta eskola-ta juten ziñeten garaien, e...

- Ama zana bizi zan ta, gure ama zanak, eta bestela ahizpa zanak eta hori, hori zien.

2. Baserria

2.1. Gaztetan gozo-saltzen

- **Hizlaria(k):** Oiarbide Goiburu, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Begiristain, Unai
- **Erref:** IDI-002/002
- **Iraupena:** 0:00:26. **Hasi:** 00:01:34. **Bukatu:** 00:02:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Armendaritz, Xabier
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Gaztetan gozo-saltzera joaten ziren neska zein mutil, anai-arreba denak.

Transkripzioa

- Gero, bueno, gozo-saltzen eta ibili izan zeate, baita. Hautza gizonak eta emakumek, mutil eta neskak, danak igoal juten ziñeten...

- Noberto, Noberto zana ta ni jeneralmente, ta, ostera, lñaxio noiz edo behin, da, [...] beste mutikon bat, Urrestillaa [...], baña Oñatin Noberto zana ta ni, jeneralmente.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Garbigailua, aurrerapena (IDI-002/003)

Gaur egungo aurrerapenen artean garbigailuari buruz hitz egiten du. Neskame onena deritzo tresna honi. Bere gaztetako ibilerak tresna honekin. Juanitaren etxean mutilek ere ikasia omen dute garbigailua erabiltzen.

2. Emakumearen lana gutxietsia (IDI-002/006)

Etxekoandreei soldata jartzea ondo irudituko litzaioke, baina ez du uste jarriko dutenik ez baita emakumearen lana behar adina aintzat hartzen.

3. Gizon-emakumeen arteko berdintasuna (IDI-002/007)

Garai batetik hona gizonaren lana baloratu izan da gehienbat eta berdintasunaren alde dago. Lehenago emakumeak tabernara sartzeko ere lotsa izan ohi zuten eta gaur egun erabat aldatu delakoan dago.

4. Baserria erre zitzaien (IDI-006/003)

5 urte zituela, baserria erre zitzaien. Ganadua salbatu ahal izan zuten; baina beste guztia galdu egin zuten. 12 senide ziren. Eta, baserria erre ostean, belarrak gordetzeko erabiltzen zuten bordara joan ziren bizitzera. Han, 9 hilabetean, nola moldatu ziren azaltzen du.

5. "Mariaren Alaba? Ni nire amaren alaba naiz" (IDI-006/012)

Dotrinan esaten zieten zer zen bekatu eta zer zen. Dantza lotua eginez gero, Mariaren Alabak kongregaziotik kanpora bidaltzen zituzten. Hasieran, obeditu egiten zuten; baina, gerora, ez. Agustinak duintasunez utzi zuen kongregazioa.

6. Emakumeak tabernan, egun berezietan bakarrik (IDI-006/015)

Oro har, emakumeak ez ziren tabernatan sartzen; egun berezietan bakarrik. Orduko giroa nolakoa izaten zen azaltzen du.

7. Errenteriako bezero leialak (IDI-006/018)

Lehenago bezeroez hitz egiten du: baziren batzuk, espresuki, Errenteriatik etortzen zirenak babarrun-jana egitera.

8. Tabernarako janaria lortzeko (IDI-006/019)

Agustinaren familiaren tabernarako janaria nola lortzen zuten azaltzen du: asteazkenetan, Burundesa autobusa hartu, eta Ordiziara joaten zen ama erosketak egitera.

9. Errazionamendua Seguran, eta estraperloa Lazkaon (IDI-006/022)

Segurara joaten ziren errazionamenduaren bila. Baina hori gutxi zen beraientzat, eta Lazkaon estraperloan aritzen zen batengana joaten ziren orduan. Horrela, aurrera ateratzea lortu zuten pixkanaka-pixkanaka.

10. "On parle français" (IDI-006/029)

Taberna jarri zutenean, errepede nagusia taberna ondotik pasatzen zen. Garai hartan, Frantzia aldetik hasi ziren etortzen Espainia aldera; eta "on parle français" zioen kartela jarri zuten tabernan. Kartela jarri zutenetik, frantsesak berehala hasi ziren etortzen gosaltzera. Egunean 30 gosari ematera iritsi ziren. Behin bezero frantses batekin izandako anekdota kontatzen du.

11. Frantsesak bezero adeitsuak (IDI-006/030)

Beraien tabernara etortzen ziren frantsesak oso adeitsuak ziren. Bezeroen artean, ahotik ahorako publizitateak mesede handia egin zion tabernari.

12. Gerra: beldurra eta heriotza (IDI-006/037)

1936an, gerra iritsi zenean, gogoan du etxean ikusi zuena. Mutil batzuk etorri ziren beraien etxera, gaua pasatzeko leku eske. Beldurra pasa zuten orduan. Gerora, anaia zaharrenak soldadu eraman zituzten; eta anaia bat hil egin zen gerran.

13. Baserrian lana jai eta aste (IDI-008/002)

Behien aurrean "itzulan" egin behar izaten zuten umetan. Denbora zutenean bakarrik eskolara. Lana jai eta aste. Abere-jakiak izendatzen ditu: artoa, trepa, paotxa, arbia...

14. Egurrak txikitu edo bidegintza, neguko lanak (IDI-008/003)

Udazkenean garo-lanak. Neguan, berriz, egurrak, txikitu, bideak konpondu eta horrelakoak. Auzolanean egiten ziren bidegintzak. Ardo pixka bat ematen zuen udalak.

15. Eskolan euskaraz hitz egiteagatik egurra (IDI-008/005)

Bost urterekin hasi zen eskolan herrian. Euskaraz egiten zuenari "lagicero" bat ematen zitzaion. Hark euskaraz entzuten zionari pasatzen zion. Jolas orduetik bueltan zuenari egurra don Alberto Ortiz maisuak.

16. Jolasak (IDI-008/007)

Ezkutaketan, pilotan, "puxuniketan" ibiltzen ziren. Pilotan ere bai amak egindako artilezko pilotekin.

17. Txori-kabi bila (IDI-008/009)

Txori-kabi bila ibiltzen ziren mutikotan. Lumatu eta jan egiten zituzten gero.

18. Orduko barazkiak (IDI-008/010)

Letxuga azukreaz jaten zen. Tomaterik ez. Arbia, abereentzat, nahiz eta zenbait kanpotarrek jaten zuten. Babarruna jaten zen asko; gero patata, aza, azalorea...

19. Txerria urte osorako (IDI-008/011)

Txerria hiltzen zen urtero. Apurka-apurka jaten zen. Udan basora lanera zihoazenean zer eramaten zuten fianbreran. Txerri-odolkiak, auzoan banatzen ziren txerri-erregaluak.

20. Belar-ontze eta garo lanak (IDI-008/012)

Belar-lanak azaltzen ditu. Garoa herri-lurretatik ekartzen zen. Baserri bakoitzak izendatuta izaten zituen bere sailak. Mugak aitzurrez markatzen ziren. Ohitura zaharrari jarraitzen zitzaion.

21. Txahala hildakoan zorra kendu (IDI-008/014)

Ama arrautzekin joaten zen Ordiziako azokara. Zorretan erosten zituen gauzak askotan, eta txekorra hiltzen zenean ordaintzen zen. "Konfiteria" esaten zitzaion dendari.

22. Ogia egiten (IDI-008/015)

Lau errota zeuden Idiazabalen. Labea etxe guztietan izaten zen, batzuetan etxetik aparte, besteetan barruan. Zortzi egunerako egiten zen, hamar bat ogi. "Beranzakie" (hazkarria, legamia) behar da ogia egiteko.

23. Pinu landatzen asko egindakoa (IDI-008/018)

Gero pinua sartu zen; orain sobra dago pinua. Pinua oso errentagarria izan zen gara hartan, pinuarekin diru asko hartu zuen jendeak. Pinu aldatzen asko ibilitakoa da. Orain ia inork ez du landatzen

24. Altzariak egiteko zura (IDI-008/019)

Pago lerdenik ez dago inguru honetan, baina Altsasu aldean-eta baziren eta altzaritarako erabiltzen ziren. Orain pinua erabiltzen da tratatu ondoren, eta gozoagoa da lantzeko. Intxaurrea ere oso estimatua zen altzarigintzarako.

25. Trontzak eta motozerrak (IDI-008/020)

Basoan lan asko egindakoa da gaztetan. Trontzaz egiten zuten lan, eta motozerrak "ez zutela pintatuko" esaten zen. Baina bai, pintatu zuten. Sei laguneko taldea ibiltzen ziren.

26. Itzainak basotik zura ateratzen (IDI-008/021)

Itzainak ibiltzen ziren basotik zura ateratzen. Zenbaitek horretatik atera zuen bizimodua. Idi pare ondo gobernatuak behar ziren. Menditik kaminora garraiatzen zuten zura. Lehen ez zen pistarik basoan; egurrez beteta egoten ziren errepede bazterrak.

27. Kaballerian soldadu (IDI-008/023)

Burgosen egon zen soldadu, Kaballerian. 1.500 zaldi zeuden. Haiek gobernatzea zen bere lana. Pozez zorutzen ibiltzen zen zaldi gainean. Etxean astoan ibilita zegoen. Zozketaz egokitu zitzaion hara joatea. Urte eta erdi egin zuen han.

28. Kapilauaren laguntzaile (IDI-008/024)

Kapilauaren laguntzaile ere egon zen soldadutzan. Meza lagundu, aldarea prestatu... ziren bere lanak. Aitzakia horrekin libratzen zen zalditegiko lanaz.

29. Idiazabalen ere monagillo ibilia (IDI-008/025)

Idiazabalen ere monagillo ibilitakoa da mutikotan. Txandaka egiten zuten, eta tokatzen zitzaion astean lau meza lagundu behar zituen egunero. Latinez ematen zen meza, baina sermoia euskara zen.

30. Misioetan izututa (IDI-008/026)

Sermioietan neskei ez begiratzeko eta horrelakoak esaten zitzairen. Urtean behin egiten ziren misioetan ileak ere tente jartzeko moduko sermoiak entzun behar izaten zituzten.

31. San Blasetan bakarrik dantza lotua (IDI-008/027)

San Blasetan (Idiazabalgo festak) egiten zen dantza lotuan; bestela ttunttuna eliza atarian igandero. Herritik ez ziren irteten. Geroxeago, bizikletak erosi zituztenean, hasi ziren inguruko erromerietara joaten. Emaztea Beasaingoa zuen hala ezagututa.

32. Altsasurako joera (IDI-008/030)

Altsasura asko joaten ziren feriatara eta. Herri nahiko erdalduna omen zen Altsasu. Erromeriara-eta gehiago joaten ziren Segura aldera. Ordubeteko bidea zuten bizikletan Altsasura.

33. Urteberri egunez ardoa udalaren kontura (IDI-008/033)

Ohitura zen Idiazabalen urteberri egunez eliza atarian udalak ardoa doan ematea. Gero lagun-taldeek herriko ostatuetan prestatutako janaria jaten zuten eliz atarian bertan. Beraiek horretan hasteko garairako galdu egin zen ohitura.

34. San Blasetan jai-giro handirik ez (IDI-008/035)

Dantzaldia egiten zen San Blasetan (herriko jaietan) baina ez zen jai-giro handirik izaten. Bertsolariak ere izaten ziren: Lazkao Txiki, Basarri...

35. Mondejua eta zezina (IDI-008/037)

Anaiak hamar bat ardi zahar erosi, gizendu eta gero pare bat etxean jateko uzten zituen. Mondejua neguan jaten da. Zezina ere gozo askoa da.

36. Garai bateko Idiazabal kalea (IDI-008/039)

Herria txikiagoa zen lehen, baserrian bizi zen jende gehiena. Zapataria, perratzailea... baziren. Amerikanoen etxeak ere badira Idiazabalen. Jubilatuen Etxea, esaterako, amerikano batena zen.

37. Etxeko janaria jateko ohitura (IDI-009/006)

Sukaldean katua ibiltzen zen. Orduan zer jaten zuten azaltzen du; ez zegoen gaur egungo aukera. Lehen, janaria etxean egindakoa izaten zen.

38. Ogia eta taloak, etxeakoak, noski (IDI-009/007)

Ogia etxean egiten zuten. Bazuten ogi-labea, txabola batean. Amak ogia egin behar izaten zuen egunetan, jenio txarrean egoten zen, suaren neurria ondo hartzen ez bazuen. Taloa ere jaten zuten etxean; beheko suan egiten zuten, eta nola azaltzen du.

39. Etxean, behiak eta oiloak (IDI-009/011)

Etxean behiak beti eduki izan zituzten. Lortutako esnea etxerako izaten zen; gerora, saltzen hasi ziren. Oiloak ere izaten zituzten; nola zaintzen zituzten azaltzen du.

40. Txerriaren inguruko ohiturak (IDI-009/012)

Txerriak ere izaten zituzten baserrian. Txerrikumeak saldu egiten zituzten; eta txerri handia etxean jateko izaten zen. Txerria hiltzean, txerrikiak nola kontserbatzen zituzten azaltzen du.

41. Goierri aldekoen fama (IDI-009/028)

Idiazabalgoek lapur-ospea izan omen dute. Segurarrak zopa-jaleak ziren.

42. Argindarra Segurari esker (IDI-010/003)

Bere akorduan jarri zen "luzelektrika", argindarra. Lehenago kinkea izaten zen. Segurari sobratu egiten zitzaion argindarra eta Ursuarani eskaini zion. Hasieran zurrumurrak ibili ziren argindarra arriskutsua zela eta horrelakoak. Aita auzo-alkate egon zen.

43. Ursuarango baserriak (IDI-010/005)

Ursuarango baserrien izenak. Elkarrengandik hurbil zeuden, "hots batera".

44. Ordiziako azokara (IDI-010/007)

Baratzean lan asko egindakoa da Agustina. Ordiziara joaten zen saltzera. Etxegarateko bidera irteten zioten astoarekin garai batean. Ursuaranera errepeidea egin zutenean beste era batera moldatzen ziren. Oraindik bezeroekin harremanetan jarraitzen du.

45. Etxeko arrautza gozoak (IDI-010/008)

Arrautza asko saltzen zuen Ordizian. Fruta eta barazkiak ere bai. Oraindik badira bere arrautzekin gogoratzen direnak.

46. Aitonarekin artzain (IDI-010/011)

Birramona ere ezagutu zuen. Makulekin ibiltzen zen. Aitona artzaina zen eta ardiak muga-mugaraino larratzea nahi izaten zuen eta neska-mutikoez ardiak ondo zaintzea. Baina beraiek geldirik ezin egon. Arratsaldetan joaten ziren ardi zain.

47. Errepide nagusia garo-gurdiz beteta (IDI-010/013)

Etxegaratera joaten ziren garotara. Errepidea Idiazabal aldeko garo-gurdiz beteta egoten zen. Zuhatza (meta) egiten zen garoaz. Zuhatza zer den.

48. Sakristau eta maisu batera (IDI-010/016)

Sakristau eta maisu egiten zuen urrestillar bat izan zuten. Idiazabalgo baserrietatik ere etortzen ziren eskolara. Neska eta mutil, denak batera. Irakurtzen eta idazten ikasten zuten; kenketak eta biderketak ere bai.

49. "Nazionalak" nola sartzen ziren begira (IDI-010/020)

Gerrarekin dena nahastu zen. Anaia gerran hil zen. Gogoan du nola sartu ziren "nazionalak" Santiago egun batez, isil-isilik Etxegaratek behera Beasain aldera. Tristura ematen omen zuen.

50. Elorritz egindako gurutzeak soroetan (IDI-010/024)

Santa Barbarara joaten ziren artoak ereindakoan. Errogatibak egiten ziren Asentziotan. Ekaitz txarrik ez egiteko izango zen. Elorria zartatu eta San Joan egunez bedeinkatutako lorea sartzen zitzaion tartean. Harekin egindako gurutzeak soroetan ipintzen ziren.

51. Ama azokatik etorri zain (IDI-010/026)

Ama azokatik etortzeko deseatzten egoten ziren. Abarketak, jantziren bat... Zain zer eta zeinendako izango ote ziren.

52. Garai baten erromeria ona Ursuaranen (IDI-010/029)

Ez ziren dantzara joaten. Dantza lotua ezinezkoa zen. Bere gurasoen denboran, berriz, erromeria ona egiten omen zen Ursuaranen. Askoz ere jende gehiago bizi omen zen antzina.

53. Ursuaran Segurakoa izatetik Idiazabalera (IDI-010/032)

Ursuaran Segurakoa zen lehenago. Baina errepidea zela eta haserretu ziren eta gestioak egin eta Idiazabalera pasatu zen. Inuzente Egunez agertu omen zen notizia egunkarietan.

54. 'Hogeita laugarrena degu abenduan' (IDI-010/036)

Gabon Egunez kantura irteten ziren, neskak goizean eta mutilak gauean. Mutilak kantatzen zuten kantua, 'Hogeita laugarrena degu abenduan', kantatzen du.

55. Ogiari patata nahastu (IDI-010/041)

Patata gose denboran hasi ziren sartzen. Ogiari ere nahasten zioten; gozoa geratzen omen da, hezeagoa. Egosi, pasadorean pasatu eta irinaz nahasten zen.

56. Odolkiak eta mondejuak (IDI-010/044)

Txerria hiltzen zenean ingurukoei "txerri-odolkiak" partitzen zitzaizkien. Ardia hiltzen zenean, berriz, auzokoari, ondokoari bakarrik. Odolkiak eta mondejuak nola egiten diren. Ardiarenak gozoagoak omen dira. "Artzai-txapela" zeer den.

57. Udan Urbiara, neguan Bizkaiko Fikara (IDI-011/003)

Artzaintzak lan asko ditu. Gazta urte erdian edo egiten zen lehen. Udan Urbiara eta neguan Bizkaiko Fikara joaten ziren.

58. Bizimodu gogorra Urbian (IDI-011/004)

Miserian bizi omen ziren Urbian. Dena behetik eraman behar zen zaldian; ogia lehortu egiten zen. Borda txarrak zituzten. Dena gela bakarra zen borda. Kamainan egiten zuten lo. Bazter batean edo kanpoan egiten zuten sua.

59. Egunean eguneko gaztaiak (IDI-011/005)

Ardiak bere kasa ibiltzen dira Urbian. Egunean-egunean egiten zituzten gaztak. Hainbat tresna erabiltzen zuten, malatsa esaterako. Gazta nola egiten den. Sei bat hilabete iraun dezake gaztak.

60. Aspaldikoa du Idiazabalgo gaztak fama (IDI-011/007)

Aspaldikoa du Idiazabalgo gaztak fama; lehengo zaharrei ere gauza bera entzuten zien. Beti ondo saldu izan dute gazta. Betidanik artzainak izan dira familian. Pertsonak ez baina txakurrak menderatzen omen du ardia; ezin da artzaintzan jardun txakurrik gabe.

61. Giro ona Urbiako artzainen artean (IDI-011/008)

Orain baino artzain gehiago zen orduan Urbian. Giro ona zegoen beren artean; jaietan, elkarrengana bildu eta jokoan aritzen ziren.

62. Neguan Bizkaira ardiekin (IDI-011/009)

Neguan Bizkaira joan beharra gogorra zen. Beste familia baten etxean bizitzen ziren, baina; jatorduak berek prestatu behar zituzten. Familia zatituta geratzen zen, batzuk Bizkaira eta beste batzuk Idiazabalen. Gazta ondo saltzen zen Bizkaian.

63. Urbiako ermitara mezara (IDI-011/010)

Bera txikia zela egin zuten Urbiako ermita. Aita Lizarralde etortzen zen Arantzazutik. Gustura joaten ziren mezata elkar ikusteagatik. Norbaitek ordainduz gero, Fondara joaten ziren salda hartzera.

64. Errogatibak eguraldia alda zedin (IDI-011/014)

"Errobatibak" egiten ziren eguraldia aldatzeko. Eskatzea libre omen da.

65. Baratze-leku ona Urbia (IDI-011/015)

Igo bezain laster landatzen zuten eta oso baratze ederra izaten zuten Urbian. Lurra omen zen ona. Baserrian ere bazuten baratzea, baina hain ona ez. Txabola guztiek zuten bere pusketa.

66. Donostian zerbitzari taberna batean (IDI-011/016)

Hemezortzi urte arte ibili zen artzain. Donostiara joan zen neskame, senide batzuek zuten tabernara. Pilotari famatuak ere bazituzten bezero.

67. Astean egun bat libre (IDI-011/018)

Egun guztian lan eta jaiegunean ere lan hasieran. Baina bere garaian hasi ziren egun bat jai hartzen. Berak astelehena libratzen zuen. Etxera etorri, lagunekin bildu, ondo pasatzen zuten egun hura. Goizeko seietan joaten ziren hondartzara, gero ezin zutelako.

68. Uniforme dotorea tabernan (IDI-011/019)

Uniforme dotorea janzten zuten tabernan. Egunero aldatzen zuten mantala. Sotoko zirriztu batzuetan egin zuten lo. Bi neskame egoten ziren.

69. Francoren soldaduen sarrera Donostian (IDI-011/023)

Irizar jatetxetik Hotel Aranara joan zen. Gerra garaian, hoteleko zerbitzari askok Bilbo aldera ihes egin zuen. Arriskutsua zen Donostia. Kanean hildakoa ikusi izan du. Soldadu frankistak ikusi zituen postontzietako bandera errepublikanoak ezabatzen.

70. Idiazabalgo bi neskari ilea moztu zigor gisa (IDI-011/024)

Idiazabalgo bi neskari ilea moztu zieten gerra denboran.

71. Bonbak Donostiako Alde Zaharrean (IDI-011/026)

Bonba batzuk erori omen ziren Donostiako Alde Zaharrean. Ez du uste inor hil zenik. Berehala pasatu ziren Donostiatik militarrek. Idiazabalen ez ziren batere geratu.

72. Hilean behin edo eskolara (IDI-011/027)

Eskolara hilean behin edo joaten zen bakarrik. Batuketak, kenketak eta biderketak ikasi zituen. Zatiketak, zenbaki batekin bakarrik. Irakurtzen eta idazten badaki, baina ez oso ondo.

73. Idiazabal kaleko etxeak (IDI-011/033)

Herrian zeuden etxeak zerrendatzen ditu: maisu-maistrena, sakristauarena, Amerikanoenak, eta abar.

74. Kontrabandoan zebilena ondo, besteak gaizki (IDI-011/037)

Gerra ostean pobre ibili ziren janez. Baserrian ez zuten goserik pasatu. Kontrabandoan zebilenak irabazi egiten zuen, bestela zebilenak batere ez.

75. Pilar-enearen etxe txikian bizi izandakoa (IDI-011/040)

Umeak etxean izan zituen. Pilar-enean ondo dagoen etxe txikian. Amerikanoen etxea da Pilar-enea. Han oso ondo bizi izan ziren.

76. Dantzazalea izan da (IDI-011/042)

San Blas jaiak dotoreak ziren. Gaztetan dantzazalea zen. Dantza lotuan ibiliz gero kongregaziotik botatzen zituzten. Mendietako erromerietara ere joaten zen, Santa Barbarara eta.

77. Gurasoak ez ziren artzainak (IDI-013/002)

Bere kasa egin da artzain, ez du aurrekaririk familian. Aitak sei-zazpi ardi erosi zituen Luis mutikoa zela. Fama txarra zuten etxean ardiek.

78. Artaldea ugaritzen (IDI-013/003)

Ardiok arkumeak egin zituzten, Luisi asko gustatzen zitzaizkion eta aitonaren laguntzaz lortu zuen artaldetxoari eustea. Zaletzen joan zen. Gero beste banaka batzuk erosi zituzten handik eta hemendik.

79. "Artzai ibili behar al dek?" amak (IDI-013/004)

Gogoan ditu amaren esaldiak bera mutikoa zela: "Artzai ibili behar al dek?" "Opiziua da baiño!" Ez zitzaien gurasoei ardiak gehiegi gustatzen. Poliki poliki 30 bat ardiko artaldea osatu zuen.

80. Goiko mendira larre bila (IDI-013/005)

Artaldea handitu zenean, auzoko batek esan zion mendira igo beharko lukeela. Horrela, aitonarekin joan zen parajeak begiztatzera eta erromeria

batekin egin zuten topo. Igo zen lehenengo egunean arazoak izan zituen artzain batekin. Bere kasa ikasi zuen artzaintza, zaletasun ikaragarria zuen eta.

81. Artzain txabola txukuntzen (IDI-013/006)

Herri-lurrak ditu Idiazabalek, 300 hektarea inguru. Soldadutza aurretik artalde osatuta zuen eta mendira igotzen hasita zegoen. Hasierako oroitzapenak; txabolaren konponketa eta txukunketa lanak.

82. Lurreko suan prestatutako babarrunak (IDI-013/008)

Lurreko sua eginda lapikoan egosten zituen babarrunak. Gero, puska bat indartu zenean, Ordiziara joan eta han erosten zituen behar zituenak.

83. Astoa eta behorra laguntzaile (IDI-013/009)

Hasieran astoa izan zuen garraiorako, gero behorra, soldadu-lagun bati erosita.

84. Astean behin feriara (IDI-013/010)

Lo ere txabolan egiten zuen. Astean behin edo joaten zen feriara. Bizikletan hasieran eta autobusean geroago.

85. Sukaldari ere bere kasa ikasi zuen (IDI-013/011)

Bere kasa ikasi zuen babak egosten eta bestelako sukaldari lanak egiten.asezko butanilloa erosi zuen halako batean. Aurretik "lurreko sua", baina orain ere erabiltzen du hotz denean.

86. Arreta etengabea eskatzen du ardiak (IDI-013/012)

Aurten ere sei hilabete pasatu ditu mendian, abenduaren hasiera arte, ia batere jaitsi gabe. Gaztetan mezara jaitsi behar izaten zuen igandero, baina azkar gora, ardiak arreta etengabea eskatzen du eta.

87. Gustura artzaintzan (IDI-013/013)

Eguneroko bizitza nolakoa den txabolan: ardiei erreparatu, egurra txikitu, hesiak konpondu, galtzak egin... Lan lotua da, baina une lasaiak eta zoriontsuak ere baditu. Bera gustura bizi da. Bakardadea sentitzen da inoiz baina normalean pozik bizi izan da.

88. Egunean birritan, jetzi ardiak (IDI-013/014)

Bi aldiz jezten zituen lehen ardiak, mendian zebiltzanean. Lehen neguan egiten zituzten umeak ardiek, orain lehenago hasten dira. Gazta egunero egiten zuen lehen. 85 urte ditu, ez dauka lehengo sasoirik lanerako.

89. Txakurra, artzainaren lagun kuttuna (IDI-013/015)

Txakurrak zerbitzu handia egiten dio artzainari. Erakutsi egin behar zaio egunero-egunero; inportantea da txakur nagusiagoekin hezitzea. "Txabal" izeneko txakurraz eta beste batek umeak egin zituenekoa. Zotalezko teilatua egin zion txakur-txabolari.

90. Astoa izutu irrati berriaren hotsaz (IDI-013/016)

Transistoreak garai hartan "argitu" zirela dio, "agertu" zentzuan. Ordizian erosi zuen bat; asto gainean zetorrela, hau izutu egin zen irrati hotsarekin eta astotik erori zen Luis. Gustura da bere lanbidearekin.

91. Ezkur edo gaztaina gehiegi jateagatik hondatu (IDI-013/018)

Ardiak artzainaren txistu-hotsa ezagutzen du. Asko jaten du ardiak, eta ezkurdi bat aurkitzen badu, gehiegi jan eta hondatu egin liteke. Bero handiegiak ere izorratu egiten du.

92. Ardiak eguraldiari antz eman (IDI-013/019)

Eguraldiari laster antz ematen dio ardiak. Eguraldi txarra badator aztoratuta egoten dira.

93. Ardi mozten guraize bereziekin (IDI-013/021)

Urtean behin mozten da ardia, san Joan aldera, eguraldia epeltzen denean. Lehenago eginez gero asko sufritzen du. Jakin egin behar da eta guraize onak behar dira. Ordizian erosi zituen lehenengoak. Berak mozten zituen gehienak. Zakuak bete eta behararekin ekartzen zuen ilea. Bolada batean estimazio handia izan zuen, baina orain ez du batere balio.

94. Muturbeltzen artilea hobea muturgorriena baino (IDI-013/022)

Artile bigunena bilatu behar da haria egiteko. Muturbeltzek hobea izan ohi dute muturgorriek baino. "Irutilea" esaten zitzaion galtzerdiak egiteko artileari. Hainbat zaku bete eta behorraz jaisten herrira. Ordiziako erosle bati saltzen zion.

95. Ahariak ardiei noiz bota (IDI-013/024)

Negu guztian ahariak ardiekin izaten zituzten baina gertatzen zen arkume batzuk beranduegi jaiotzen zirela, mendira joateko garaian. Horregatik erabaki zuen garai batetik aurrera ahariak ardietatik kentzea. Orain gauzak aldatuta daude.

96. Ez da sekula ardiekin Bizkaira joan neguan (IDI-013/025)

Elikaduraz. Txikitutako baba, artoa eta ilarra ematen zaie orain pentsu gisa. Lehen batere ez. Lehen Bizkaira joaten ziren artzain asko negua pasatzera, baina bera ez da sekula joan, etxe inguruan konpondu da.

97. Begi bat galdu eskolan (IDI-013/026)

Orain ilobek laguntzen diote. Begi bat galdu zuen Luisek eskolan zebilela tiragomaz eta harrezkero begi batekin konpondu behar. Kataratetatik operatu dute duela gutxi.

98. Beasainera eskolara (IDI-013/027)

Dotore jantzita joan zela oroitzen da lehen egunean eskolara. Berehala etorri zen gerra eta eten eskola. Geroago Beasainen ibili zen. Oinez egiten zuten joan-etorria. Eskolan bazkaltzen zuten. Oinarrizko gauzak ikasi zituen: batuketak, kenketak, irakurtzen, dotrina, gutunak idazten...

99. Don Julian irakaslearekin gustura eskolan (IDI-013/029)

Dotrina erdaraz ikasi behar izan zuten Hermanoetan. Ordurako euskarazkoa ikasita zeukan. Gero Beizamako bat izan zuen irakasle, Don Julian. Asko maite zuen Luis. Batzuetan berandu heltzen zen eskolara, eta horrek guztiz penatzen zuen. Zozokumeak-eta eramaten zizkion Luisek eta irakasleak kaiola batean izaten zituen. Gero ardiekin hasi eta eskola utzi zuen 13-14 urterekin.

100. Lurrean bilatutako diruari esker handitu artaldea (IDI-013/031)

Ordiziako feriatik bueltan zetozen zalgurdiz beteta egoten zen errepidea. Bera, inoiz, zalgurdi atzeko hanka-lekura igo eta gainean etortzen zen. Behin horrela zetozela lurrean ikusi zituzten diru-paperak hartu zituzten. Mutiloko gizon batenak ziren, itzuli egin zitzaizkion, eta, esker gisa, hamaika ardi oparitu zizkion familiari. Izenak jarri zizkion Luisek bakoitzari: "Pintea", "Mutturgorrie", "Makatxa"... 30 ardiko artaldea osatu zuen, eta orduan hasi zen mendira igotzen. Ez zuela luzaroan jarraituko esaten zioten, baina gaur arte.

101. Andereñoen Erresidentzian laguntzaile eta Pasaiaiko eta Groseko ikastolan lanean (IDI-016/002)

Ihazinto Fz Setien apaizak Beasainen jarri zieten hitzordua Nekaneri eta bere adiskideei. Ihazintok proposatu zieten erresidentzian bizitzea andereñoekin batera, eta, aldi berean, ikastolan lan egitea. Beren bizitzako urterik politena pastu zuten. Klaseak ere bazituzten, Literatura Juan Mari Lekuonarekin, Historia, Aditza, euskara baturik oraindik ez zan. Eta Pedagogia. Baina ez zen hori Nekaneren beste laguntzaileen eguneko lan bakarra. Goizez, Pasaia Antxoko ikastolara joaten zen Kontxita Beitia andereñoari laguntzera, eta, arratsalde, Donostiako beste batera. Urtebete horrela igaro ondoren, egoitza utzi eta Pasaiaiko ikastolan hasi zen egun osoz lanean.

102. Andereñoen Erresidentzia Zabaleta Kaletik Antiguora (IDI-016/003)

Andereñoen Erresidentziak hainbat tokitan izan zuen egoitza. Lehenengo pisua hondartza ondoan (Manterola Kalean), baina berehala aldatu ziren Zabaleta Kalera. Geroago Antiguora pasatu ziren. Geroago Aietera.

103. Uda etortzean giro guztiz erdaldunean murgiltzen ziren ikastolako haurrak (IDI-016/004)

Pasai Antxon zegoen ikastola, eta Antxon ia inork ez zekien euskaraz. Donostian bertan ere inork gutxi egiten zuen. Ikastaroan zehar ahalegin izugarria egiten zen baina gero oporrak etortzen ziren eta giro guztiz erdaldunean murgiltzen ziren haurrak.

104. Euskarazko udalekua sortzeko ideia (IDI-016/005)

Aurrezki Kutxaren udalekuak baziren lehenagotik: Ribabellosa Araban eta Goienetxe Donostian. Orduan zera bururatu zitzaion: zergatik ez dugu antzeko zerbait egiten, baina euskaraz? Ideia Erresidentziako Juntari planteatu zitzaion lehendabizi, eta Ikastolen batzordeari gero. Berehala onartu zuten.

105. Errioxara etxe bila (IDI-016/006)

Ikastolak klandestinoak izaki, gehienek pentsatzen zuten hobe zela udalekua Euskal Herritik kanpo kokatzea. Errioxara jo zuten lehenengo. Ez zuten ezer aurkitu. Nekanerekin batera lehen espedizioan joan zirenak: Joanito Goia, Iñaki Guruzeaga eta Erreteriko Sarasola.

106. Barriako lekaimetxeko hospederia (IDI-016/007)

Arabako Narbaxa herrian dagoen Barriako lekaimetxearen berri izan zuten, eta hara joan ziren Nekane eta hainbat ikastolako guraso. Garai batean Santiago Bideko Hospederia izandako etxea hutsik zegoen. Itxura ona hartu zion hasieratik, nahiz eta urik eta jangelarik ez izan. Berehala konpondu ziren mojekin.

107. Jendea prest begirale lanerako (IDI-016/008)

Begiraleak bilatu beharra zegoen. Jendeak ilusio handiarekin hartu zuen asmoa. Gazte asko apuntatu ziren, neskak batez ere. Ez zuten obrarik egin. Orma bat bakarrik, begiraleen gela bereizteko. Lurrean egin zuten lo begiraleek lehenengo urtean.

108. "Umeek egin dezaketena, beraiek egin dezatela"; "Naturan ibili, ezagutu eta gozatu" (IDI-016/009)

Boy Scout talde bateko buruarekin bildu ziren. Harengandik ikasi zituen bi gauza inportante: "Umeek egin dezaketena beraiek egin dezatela"; "Naturan ibili, ezagutu eta gozatu". Bi txanda izan zituzten, 34 hurrekoak. Urarekin arazoak.

109. Talde bakoitzak bere eginkizunak eta ardurak (IDI-016/010)

Hasiera prekariora, baina ilusioa sekulakoa zen. Sagarrondo baten itzalean egiten zituzten jatorduak. Begirale bakoitzak bere taldea zuen. Eguneko egitaraua eta ardurak kartulina batean idazten ziren. Talde bakoitzak bere eginkizunak zituen: ura ekarri, mahaia jarri, ogi bila joan... Mojen bidez ekartzen zuten arraina eta fruta.

110. Barrian oso harreman ona inguruko jendearekin (IDI-016/011)

Ikastolak klandestinoak zirela jakinda, kontu handia izan zuten ez nabarmentzen eta kontraktasunik ez sortzen. Oso harreman ona izatera heldu ziren inguruko jendearekin. Behin, bakailao bana oparitu zieten herriko familia bakoitzari.

111. Musikaz esnatzen ziren goizean (IDI-016/012)

Musikaz esnatzen zituzten haurrak. disko-jogailua zuten. Etxea nolakoa zen.

112. Bolatokiak ikusi, artisauak bisitatu, iturritan ura edan... (IDI-016/013)

Egitaraua: natura eta eskulangintza. Herriz herri joaten ziren, taldeka. Bolatokiak ikusi, artisauak bisitatu (buztingintzan zihardutenak, erratzak egiten..), iturritan ura edan, itzaletan gelditu, jendearekin hitz egin... Aspurun bazen down sindromea zuen mutiko bat. Oso lagun egin zuten. Mojen morroia ere bai.

113. Arantzazura oinez (IDI-016/016)

Bazkalostean indigaztaina handi baten azpian egoten ziren patxadan. Ipuinak, kantuak, jokoak eta horrelakoak egiten zituzten. Txanda bakoitzean, irteera Arantzazura oinez.

114. Gurasoen Eguna, eta eraguztietako euskaltzaleak Barriara bisitan (IDI-016/017)

Esamesik sortu ez zedin udalekuaz, hau da, urik ez zegoela, gaizki jaten zela eta horrelakorik, Gurasoen Eguna antolatu zuten, etorri eta beren begiekin ikus zezaten. Oso ondo joan zitzairen. Arazo bakarra, ume batzuk negarrez geratzen zirela gurasoak alde egindakoa. Soinujole bat bazuten igandero etortzen zena; Pasaiaiko Oskarbi Taldea Gurasoen Egunean. Kultura mundukoak ere joaten ziren, Satrustegi, esaterako, ipuinak kontatzera, edo eta Manuel Lekuona. Aste barruan ere joaten zitzaizkien batzuk; era guztietako euskaltzaleak hurbiltzen ziren.

115. Komunak eta dutxak egiten (IDI-016/019)

Donostiako familia batek (iturgina gizona) komunak eta dutxak egin zituen negu batean. Ignacio Garmendiak ur-bonba jarri zuen putzutik ura jasotzeko.

116. Mojen esku janaria prestatzea eta ontziak garbitzea (IDI-016/021)

Mojei planteatu zieten ea mojak eurak arduratuko ziren janaria prestatzeaz eta ontzien garbiketaz. Trukean, ura sartu zuten klaustrora, eta mojak poz-
pozik geratu ziren. Horrek asko erraztu zituen gauzak.

117. Garmendiatarrak: familia osoa Barrian (IDI-016/022)

Ormaiztegiko Garmendiatarrak. Familia osoa ibili zen Barrian. Mari Karmen, Arantzazu eta Julitxo, begirale. Eli, Itziar eta Aloña ume. Aita, ama, anaia... konponketak egiten edo laguntzen.

118. Mojak alde egin eta etxe guztia eurentzat (IDI-016/024)

Mojak etxea utzi eta Oionera joan ziren, eta etxe guztia libre geratu zen. Leku handiegia, eta kudeatzeko zailagoa. Federazioa ere indartuta zegoen ordurako. Ikastolakoak ez ziren umeak ere hartzen zituzten. Errefuxiatuen seme-alabak ere izan zituzten.

119. Ozaeta eta Agurainen iraupen laburreko udalekuak (IDI-016/026)

Hurrengo urtean (1965?) Ozaetan hartu zen beste etxe bat. Uste du bi urte iraun zuela herri horretakoak. Hurrengo urtean edo, Agurainen hartu zen beste bat. Eta handik gutxira Saturrarana joan ziren hango batzuk.

120. Unibertsitatean zebiltzan ikasleentzako udalekuak Otsagin eta Leitzan (IDI-016/027)

Unibertsitarietzako udalekua antolatu zen, "jar zitezen puxka bat hortan". Ordurako baziren han-hemen Bigarren hezkuntzako Lizeoak, eta jendea prestatzen joateko. Lehenengo urtean Otsagin egin zen, Jorge Cortes Izal-en etxean. Bigarrenean, Leitzan. Gehiago ez zen egin.

121. 1973an Barria utzi eta Iratxera (IDI-016/029)

Mojak alde egitearekin zaildu egin zen bizimodua Barrian. 1973an Barriatik Iratxera aldatu zen udalekua . (1972an Barria itxi eta 73an Iratxe ireki).

122. Lehenengo eguneko afaria Barrian (IDI-016/031)

Egun gogoangarria lehenengoa. Irungo jendeak bildu zituen Errenteria eta Lezoko umeak. Autobusa zain zuten Donostian. Begiraleak bidean geratu ziren lehen afarirako jeneroa erostera: ogia eta arrautzak. Bezperatik ez zen inor joan etxea prestatzera. Prekarietate osoa, baina hala ere oso ondo.

123. Jendea lanerako prest beti (IDI-016/033)

Mojek alde egin zutenean, Pasai San Pedro eta Asteasuko festak aprobetxatuz, jende mordoxka batu zen lanera Barriara. Jende horrek igandero joaten jarraitu zuen.

124. Errefuxiatuen seme-alabak udalekuetan (IDI-016/035)

Ondarroarrak zera esaten zuen: "irolara (komunera), andereño". Errefuxiatuen seme-alabak ere egon ziren: Txillardegiren bi seme-alaba, Belgikatik etorriak, Benito del Vallerena, Paristik, Julen Madariagaren alabak, Aitziber eta Ermiñe, Iparraldetik.

125. Gasteizko ikastolako gurasoak Barriara denbora pasa (IDI-016/037)

Gasteizko ikastolako gurasoak sarri etortzen ziren arratsalde pasa.

126. Sobratutako diruaekin ibilaldia Otsagira (IDI-016/039)

Postrearekin kontuz ibiliz eta abar, superabita egin zuten lehen urtean. Koltxoiak erosi eta gero, sobratutako diruarekin, begiraleak Otsagira joan ziren oporretan. Hango emakume batek esan zien bere gurasoek egiten zutela euskaraz. Gogoan zituen hainbat esaldi.

127. Antonia Anaut, Erronkariko azken hiztunarekin solasean (IDI-016/040)

Beste behin, Aste Santuan, Erronkariko azken hiztuna grabatu zuten, Antonia Anaut, Kattalin Garde etxekoa. Galdu egin zen zinta istripu baten ondorioz. Oso gorra zegoen emakumea ordurako.

128. Satrustegi, Barandiaran eta Fernandez Setien (IDI-016/042)

Jose Maria Satrustegi euskaltzaina afaloste batzuetan etortzen zen ipuinak kontatzera. Iazinto Fernandez Setienek berebiziko garrantzia izan zuen udalekuen sorrera. Behin, motorrean ekarri zuen Don Jose Migel Barandiaran Barriara. Hiru orduz egon zen hurrekin hizketan, oso gustura. Iazintok urrutira ikusten zuen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-06-23

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com